

2022-06-03 / 736 ZENBAKIA / 18. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



**Jokin Lizeaga
eta Ainhoa Jauregi
Zegamako helmugan
elkartu zirenekoa,
igandeko irudietakoa** / 3



**Mikel Legarreta
urnietarra 2023an
hogeigarren
Zegama-Aizkorriren
bila irtengo da** / 3



Lasterkariak Olinpoan

Zegama-Aizkorri mendi maratoia lasterkarien data seinalatua da / 2-3

EZ NORMALAK, EZ OTZANAK ERAKUSKETA

**Ekainaren 16tik 30era
Bastero kulturgunean**

**Astelehenetik ostiralera: 10:30-13:30 / 16:30-20:30
Larunbata: 10:30-13:30**



Bisita gidatuak

***Gehienez 5 pertsonako taldeak
*Erreserbak: 676 567 724**

Ekainak 16 osteguna. 18:30. Euskara.
Ekainak 18, larunbata. 11:30. Gaztelania.
Ekainak 20, astelehena. 18:30. Euskara
Ekainak 22, asteazkena. 18:30. Gaztelania
Ekainak 29, asteazkena. 18:30. Euskara



Jendetza eta animo oihuak partaide guztientzat. Horixe da Aizkorri, Zegama-Aizkorri mendi maratoian. AIURRI

Zegama-Aizkorri gure olinpoa

Olinpo Greziako mendia garaiena da, hango mitologian esanahi berezia duena. Aizkorri ez da Euskal Herriko mendirik garaiena, baina kirol jardunean goi-goian dagoen toki kuttuna da. Zaletuek, aurreko igandean, jainkoen pare hartu zituzten korrikalariak

Mikel Arberas ANDOAIN

Zegama-Aizkorri mendi maratoiak nazioarteko beste lasterketatik bereizten dela esatean, ez da hitzontzikeria hutsa; herrialde ezberdinetatik etorritako zaleak elkartzen dira. Giro sanoa nagusitzen da, naturarekiko errespetuan eta animo-oihuak nonahi entzunez. Euskaldunok ohituta gaude horrelakoetara, txirrindularitzan, eskupilotan edota futboleant, besteak beste. Gainera, kanpotik datozen trail-zaleak ere, festara batu eta giro ezin hobean murgiltzen dira: guztiak bat eginda,

igarotzen den korrikalari bakoitzari animatzeko, nor den ez jakin arren. Zirrargarria da.

Bertakoen sailkapenak Urnieta

- **4:38:15** Unai Ezeiza Jauregi. 75. postua.
- **5:16:38** Mikel Legarreta Astiasaran. 152. postua.
- **5:51:20** Ainhoa Jauregi Zubeldia. 40. postua.

Andoain

- **4:47:11** Oier Escudero Mendizabal. 95. postua.
- **6:23:08** Maialen Gurrutxaga Perez. 45. postua.

Oier Escudero: "Lasterketan aurkitu nuen giroa deskriba ezina da"

"Oso pozik nago! Asko sufritu nuen azken 45 minutuetan, baina inoizko sasoi onenean iristea lortu nuen, eta hortxe emaitza. Nik bezain besteko meritua dute entrenatzaileak eta etxekoek. Lasterketan aurkitu nuen giroa ezin da deskribatu. Banekien zer aurkituko nuen, baina lasterketa esperotakoa baino zirrargarriagoa izan zen! Bi lasterketa ditut begiz jota: Ultra Comapedrosa, Andorran eta Trofeo Kima, Italian".



Oier Escudero andoaindarra, Aizkorriko tontorrera bidean. AIURRI



Lasterketa bikaina osatu zuen, 4:47:11-ko denboraosatuz. AIURRI

"Helmugan Jokin zegoen, oso une polita izan zen"

AINHOA JAUREGI MENDI-LASTERKARIA
Biharamun emozionala zuen lasterketaren biharamunean



Lizeaga eta Jauregi, helmugan. JAUREGI

Andoni Urbistondo URNIETA
"Egun biribila izan zen. Bizi abiatu nintzen, beroa sumatzen zen Zegaman bertan baina gero eguraldia atsegina izan zen, gailurretan. Esponjekin bustitzen eta beste aritu ginen anoa puntu guztietan, gorputzeko tenperaturako mantentzeko. Karranpak bai, jasan nituen, Sancti Spiritun, garaiz, normalean Andraitz arte ez baitituz nabaritzen. Lasai igo nintzen Sancti Spiritutik gora, gailurreria ere oso eroso pasa nuen, ondo jan eta edan ondoren, eta Urbian, korrika hasi eta gorputza oso ondo sentitu nuen, eroso. Andraitzen karranpak areagotu egin ziren, serioak, eta luzapenak egin behar izan nituen minututxo batez edo. Goia jo eta beheraka hasi ostean karranpak desagertu ziren. Nahiko azkar jaitsi nintzela uste dut. Seme-alabak Sancti Spiritun eta 40.

kilometroan zeuden, oso polita izan zen. Helmugan Jokin zegoen, oso une polita izan zen. Bukaera ona izan nuen, lasterketa ondo egin izanaren sentsazioarekin, eta noski, berriro Zegamara berriro bueltatzeko gogoz. Inoizko jendetza handiena sumatu nuen Aratzen, Sancti Spiritun, Otzaurren, Aizkorrin, Andraitzen... Jendea gain-gainean, nahiz eta ni lehenengoak pasa eta denbora askora igaro. Eguraldia lagun izan genuen, eta jendartearen animatzeko gogo ikaragarria sumatu nuen".

**"BUKAERA ONA
IZAN NUEN,
LASTERKETA ONDO
EGIN IZANAREN
SENTSAZIOAREKIN"**



Lide, Negu eta Intza Ainhoa Jauregiaren seme-alabak, Zegamako helmugan. JAUREGI

"2023koa hogeigarren Zegama izango da niretzat"

MIKEL LEGARRETA MENDI-LASTERKARIA
Urnietarrak edizio guzti-guztietan parte hartu du



Mikel Legarreta, aurtengo lasterketan. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA
Pozarren zegoen urnietarra, igandean bizi izandakoarekin: "Ondo nago, gustura, entrenamenduak aintzat hartuta, aprobata. 5:16 denbora egin nuen, urteroko antzekoa. Ondo bukatu nuen, nahiz eta hasieran mantso hasi, izorratuta bukatzeko beldurra neukalako. Bost orduko langa jaisteko aukera ikusi nuen, momenturen batean, eta pixkat estutu, baina jabetu nintzen ezingo nuela, eta lasaitu egin nuen erritmoa. Behar-ko zatian erdi paseatzen jaitsi

nintzen. Jendetza zegoen, eta sortu zen ambientea latza. 2023an ere bertan egoteko esperantza daukat, ea gehixeago motibatzen naizen, 20. Zegama izango delako niretzat. Ea bost orduko langa hori jaisteko aukera dudan".

**"IBILBIDEAN
JENDETZA ZEGOEN,
ETA SORTU ZEN
ANBIENTE
LATZA"**



AIURRI

Jokin Lizeaga, esatari lanetan

Euskal Herriko eta kanpoko mendi lasterkarientzat aurkezpenik behar ez duen mendi lasterkaria da Jokin Lizeaga. Oso maitatua da, gainera. Ezinezkoa izan zitzaion korrika aritzea eta igandean EITBrentzat esatari lanetan aritu zen. Eskarmentu handikoa da urnietarra, eta Zegama-Aizkorri lasterketaren xehetasunak gutxi bezala ezagutzen ditu.



Aurtengo podiuma. ZEGAMA

Urnietako aizkora irabazleentzat

1971n, Oñatiko Aloñako Mendi Elkartek aizkora itxurako postontzia jarri zuen Aizkorriko tontorrean. Antolatzaileek irudi ezagun hori baliatu dute irabazleei aizkora bana oparitzeko. Erdian txapeldunaren izena darama aizkorak, eta alboetan aurreko urteetakoena. Urnietan egin da, Joxerramon Jauregiaren eskutik. Ideia polita antolatzaileena, Urnietako aizkorak ere gehiago famatuko dituen.



Kilianen izena darama. CARRERA TRAIL



Biel Ráfols korrikalaria. ZEGAMA

POSTONTZIA

SAGARDOA ROUTE BETERRI-BURUNTZA

Aurtengo sagardotegi denboraldia

Sagardotegi denboraldia, "Zuentzako prest!" lelopean eman zion sagardo sektoreak hasiera 2022ko Sagardotegi denboraldiari. 2022ko denboraldia ere ezohikoa izan da, ezin izan baitzen otsaila erdialdera arte txotxik egin. Aurtengo denboraldia ere, sagardo berria botila garden eta pitxarretan dastatuz hasi zuten bezeroek eta otsaila erditik aurrera, izan da zutitu eta txotxetik dastatzeko aukera. 2021arekin alderatuta, sagardogileek lanerako aukera gehiago izan dute. Gogora

dezagun 2021an itxi-ireki ibili zela ostalaritza, herri mugakideetara soilik mugitzeko aukera zegoela, eta eguerdian bakarrik izan zutela irekitzeko aukera hilabete luzez. Bataz beste, % 25 handitu dira sagardotegien erreserbak iaztik aurtengora. Irteera, dastatze eta bisita gidatuen inguruan, iazko urte osoko erreserba datuak gainditu ditugu dagoeneko Sagardotegi Denboraldian. Nabarmentzekoa da garai honetan dastatze gidatuek izan duten eskari kopurua.

Lehenengoz sektoreak halakoak eskaini ditu eta hurrengo urteetan ere bide hori indartzen joango da. Bezeroen kontsumo ohiturei dagokienean, azpimarratzekoa da joera aldaketa: eguerdiko zerbitzuak igo dira, eta gauetako zerbitzuak jaitsi. Datu hauekin sektoreak positiboki baloratzen du 2022ko denboraldia eta hurrengo urteetarako ere eskaintza egokitzen joango dira bezeroek urtero-urtero sagardo berria dasta



dezaten eta sagardoak eskaintzen duen aukera guztia gozatu eta baliatu

dezaten, sagardoak eskatzen duen begirunearekin beti ere.



AIURRI

Trabatuta

Astearte goizean kamioia trabatuta geratu zen La Salle Berrozpe ikastetxearen sarreran. Atzealdean zeraman garabiatxoak lurrarekin jotzen zuen, eta karga arinduz ibilgailua ateratzen aritu ziren. Azken aldian kamioiak ezusteko protagonista bilakatu dira herrian.

Aurreko batean Leizaran institutuaren parean ohararazpen guztiei iskin egin eta institutu pareraino iritsi zen kamioia. Bertako biribilgune txikian ez atzera, ez aurrera geratu zen. Udaltzaingoa laguntza behar izan zuen kamioia onbideratzeko.



AIURRI

Kerik gabeko astea

Andoaingo ambulatioaren sarreran zeuden paperak ez ziren grebara deitzeko edo protesta egiteko afitxak. Kerik gabeko astea ospatu zuten maiatzaren 25etik 31ra. Andoaingo osasun etxean erretzeari uzten laguntzeko lantaldea martxan dago. Ekimenari esker, hainbat lagunek utzi diote erretzeari.

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da.
Urietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalgunetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
[@aiurri](https://twitter.com/aiurri)

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarte Mendia.
idaizkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urietan).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urietako UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



andoaINDARRA
euskaraz

IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Corsa rosa-ko notak: 10etik Ora

10 Jai Hindley. Inork ez zuen espero, denok utzi gaitu ahoa bete hortz. Denok pentsatzen genuen 2020ko bere bigarren postua *bluff* bat izan zela, are gehiago iaz desagertuta egon ondoren. Ba orain to, egurra! Giroko garailea, eta indartsuena izan da. Jo behar zenean erasotuz, eutsi behar zenean eutsiz. Oso kalkuladorea, eta bere taldean babesa bilatuz. Erne BORA-Hansgrohe taldearekin, INEOS inperioa eraitsi baitu Apenino, Alpe eta Dolomitetan.

9 Mikel Landa. Podiuma. Argazkia. Historia. Parte hartzearen inguruko eztabaidak, edo egon diren hutsuneen inguruko komentarioek ez dute ezertarako balio, dagoeneko. Iritsi direnak iritsi dira, kito. Landaren bigarren podiuma da, Giroan, lehena lortu eta zazpi urte geroago. Denbora asko. Giroko podiumean Abraham Olano eta Unai Osa izan ziren azken euskaldunak, 2001 urtean. 20 urte pasa dira, eta horrek erakusten du podiumak beti direla garestiak, eta

garrantzitsuak. Bestelako eztabaida da podium horrek zaleak asetzen dituen edo ez, edo Landaren muga Giroko podiumak behar lukeen edo ez. Egiari zor, maglia arrosa janzteko aukerarik ez du eduki arabarrak, eta itzuli handi bat irabazteko pokerrean ote dagoen ere eztabaida daiteke. Lerro hauek idazten ari denaren ustez podium-ean egon daitekeela erakutsi berri du, baina podium-etik irabaztera koska handiegia dago.

8 Mathieu Van der Poel eta Alpecin-Fenix. Fenomeno mediatikoa da Van der Poel. Etapa bat irabazi du, eta mila ihesalditan sartu da. Alpecin-ek hiru garaipen lortu ditu, talde bikaina.

7 Jumbo-Visma, Groupama, Wanty, Trek eta Bike Exchange. Jokua eman diote Giroari. Herbeheretakoak Bowman-en bi etapa eta mendiko sailkapenarekin, baina Lemreiize eta Eeckhorn beti buruan. Groupama Nono Demare-ren hiru garaipenekin eta maglia ciclaminoaren jabe, oso estimatua Italian. Eta Wanty ere dotore: Birian

Girmay afrikarraren garaipena, Van der Poelen aurka, Jan Hirt seigarren eta etapa, eta Domenico Pozzovivo zortzigarren, kementsu. Trek ere ondo, nonno Cicconek etapa, Juanpe Lopez gazteak maglia arrosa hamar egunez, Top 10a eta gazte onena. Bike Exchange-ek ere buelta eman dio, Simon Yates-en Etnako kaskarraldiak halakorik ez bazuen aurreikusten ere. Hiru etapa eurentzat.

6 Pello Bilbao. Talde gizona. Eta bosgarren. Segundu gutxira laugarrenetik. Bi hilabete daramatza sasoi betean, Itzuliaz geroztik, eta arnas luzeko txirrindulari bikaina da. Sakrifizioa. Konpromisoa.

5 Nibali. Plazera Messinako marrazoaren balentriekin gozatu izana urte luzez. 4. postuan bere azken Giroan, nahi izan du hobeto aritu, baina 37 urterekin, ezin. Mito bat badoa. Grazie Squallo!!!

4 Giroko parte hartzea, eta ikuskizuna. Ez zen oso aberatsa izan Budapest-eko abiapuntuan, eta hainbaten

erretiroak itsustu egin du: Miguel Angel Lopez, Romain Bardet, Joao Almeida... Ikuskizunaz, antolatzaileek ibilbideari buelta bat eman beharko ote dioten edo ez, zer? Karrera txirrindulariek egiten dute, futbolariak futbola bezala. Ibilbide bat edo beste, protagonistek grina edo kemena jartzen ez badute, jai dago. Giroa pobrea izan da, zergatik ukatu, eta Giro zaleoi izorratu gaitu, Giroa izan baita azken hamarkadan ikuskizun osatuena eman duen itzuli handia. Aurten ez, eta RCS talde antolatzailearen hausnarketa behar du horrek derrigor.

3 Talde gonbidatuak: Ibili dira Drone Hopper, Bardiani eta Eolo-Kometa, garaipenaren usainean, baina maila diferentzia nonbait nabaritzen bada, World Tour lasterketa handietan izaten da. Saiatzearen poderioz, iritsiko zaie unea. Merezi dute tokia, eta hiru baino gehiago balira, hobe, World Tour talde askok erakutsi ez duten jarrera oldarkorra erakutsi baitute.

2 Fernando Gaviria: Zulo ilunean murgilduta dabil aspaldi, eta atera ezinik bertatik. Dainese modu ulertezinean lapurtu zion garaipena Reggio Emilian, eta Marmoladan gora jasan zuen miseria gertutik ikusi genuenok jota geratu ginen.

1 Miguel Angel Lopez: Giroa irabazteko, edo podiumera igotzeko hautagai sendoenetakoa zen, baina konturatzerako, etxera joan zen, lesio baten ondorioz. Talentua dauka kolonbiarrak, baina bere bizikleta gaineko jarduna ez baizik sortzen dituen katramilak dira hizpide.

0 Movistar eta Israel: Igoera/jaitsiera sistemarekin larri ibiliko dira maila mantentzeko, ez baitute puntu askorik batu. Bereziki txarra Israelen Giroa. Movistar-ena ere, pobrea. Valverde Top 10ean sartzeko helburua zuten, puntuak batzeko, baina kale.. Ivan Sosa liderra bera ere oso eskas. Urte erdia joan da, eta Movistar-ek egoerari buelta eman beharra dauka, maila galdu nahi ez badu.

GORA ETA BEHERA



San Miguel elizako ordulariaren kiko utzikeria

Zein da 2016ko Sanmielen hasiera eta 2022ko Gazte festen hasiera elkar lotzen dituen detailea? Biak, iluntzean izan arren, 14:45ak pasatxo zirela adierazten zuela elizako ordulariak. Sei urte dira matxuratu zenetik, duela bi urte eta erdi konponbidea iragarri bazen ere, arazoak bere horretan dirau.



2016tik matxuratuta dago San Miguel elizako kanpandorreko ordularia. AIURRI



DENDARTEAN

Ticket Bai ezbaian jarri dute

"Traba gehiago ez saltoki txikiei!" izenburupean, DendarTEAN ekimenak Gipuzkoan protesta abiatu zuen apirilean. Astelehen honetan Gipuzkoa plazan elkarretaratzea deitu zuen eta bertara Andoaingo merkataria ugari hurbildu ziren. Hauexek euren lemak: "Ez dugu ezer ezkutatzeko"; "Gastu berriak ez", "Beste lehentasun batzuk", "Zergaitik gu lehenak?".



Arantxa Mendiluze eta Itxaro Gereño, Andoaingo Osasun Etxean. AIURRI

Kerik gabe bizitzeko

Erretzeari uzteko taldea dago Andoaingo Anbulatorioan, Osakidetzak bermatuta. Herritarrez gain, bailarako jendeak ere parte hartzen du dinamikan. Kontzientzia hartzeko eta erronkari eusteko bultzada ematen du

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Tabakoaren kearen kontrako nazioarteko eguna izan zen iragan astearte. Nikotina hostotik abiatuta, estimulazio zuzena eragiten duen droga da tabakoa. Adikzio-maila handia eragiten du, zentzumenak (dastamena, esaterako) eraldatzeraino, organoak kaltetzeraino. Nolanahi ere, tabakoaren kea soberan barneratua, eskura dago jendartean. Ez da legearen muga zeharkatu behar hura kontsumitzeko; begi onez jotzen da, onespen handiz erreparatzen baitzaio. Epe laburrean plazera eragiten duen arnas-hartzeak, ordea, luzera begirako kalte lazgarriak eragiten ditu.

Hori horrela, tabakoa uzteko borrokan dabilta erretzaile asko eta asko. Bada, horretarako aukera eskaintzen du Andoaingo anbulatorioak, erretzeari uzteko taldearekin. Orain hamarkada bete ekin zioten egitasmoari, eta

hamargarren taldea dute aurtengo. Erizaintzako ikaslearekin batera, bi langilek dinamizatzen dute proiektua: estreinakoz ari da taldearekin lanean Itxaro Gereño; aldiz, Arantxa Mendiluze hasiera-hasieratik da bide-lagun: “Gaur egun, askotariko moduak daude erretzeari uzteko, baina, Andoainen, gertuko jarraipenean sinesten dugu. Anbulatorioetik ahalegina egin nahi dugu, aurrez aurreko dinamika izan dadin”.

Deialdi irekia da, eta bost sesio izaten dira, orotara; guztiak, presentzialak. Lehen hiruak, jarraian egiten dituzte, astean behin, astearteetan, ordu eta erdiz. Hirugarren asteartearen biharamunean, asteazkenarekin egiten dute uzte-eguna (erretzeari uzten diote). Laugarren saioa astebeteren buruan izaten da, errefortzua emateko, eta azken saioa, osterara, erretzeari utzi eta hilabetera egiten dute (kasu ho-

netan, hilaren 7an elkartuko dira berriro). Bestalde, jarraipena egiteko asmoz, telefono-deiak egiten dizkiete hiru, sei eta hamabi hilabetera.

“Guk marko teorikoan kokatzen ditugu, zer sentituko duten uler-tu dezaten”, azaldu du Gereñok, “era berean, beren bizipenek pisua dute gurean; finean, nor bere erlazioa dauka tabakoarekin”. Askotariko edukiak jorratzen dituzte saioetan: tratamendu motak, uzteko baliabideak, ahulguneak, faseak eta horietan sentitzen diren ondorioak. Halaber, beren arrisku propioak identifikatzen dituzte, baita egoera zaurgarriak eta horiei

DEIALDI IREKIA DA, ETA BOST SESIO IZATEN DIRA, OROTARA; GUZTIAK, PRESENTZIALAK

aurre egiteko erremintak eza-gutu ere. Dena dela, ekarpen aberasgarriena, parte-hartzaile guztiek diotenez, bizipenen elkartrukea da.

Plazera baino, kalte

“Tabakoarekin harreman luzea” duten herritarrek gerturatzen dira Andoaingo Anbulatorioa, Mendiluze erizainaren esanetan: “Urte asko daramatzate tabakoa kontsumitzen, hamarkadak eta hamarkadak. Nekatuta daude, eta, behingoz, erabaki sendo bat hartuta etortzen dira”. Hala, Gereñok gehitu du uzteko desio handiarekin ematen dutela izena, plazeraren iturri baino, arazoan erantzule gisa identifikatzen dutelako tabakoa. 2012 eta 2016 urteen artean herrian bertan egindako ikerketaren arabera, bertaratzen direnen % 41ak uzten dio, urtebetez gutxienez, erretzeari Andoaingo saioetan. Erdira ailegatzen ez bada ere, tabakoa uzteko beste baliabideekin alderatuta, “oso zifra altua” dela dio Mendiluzek.

Taldean hasi aurretik, banakako saioa egiten diete. Bertan, dinamika azaltzeaz gain, pisua hartzen diete, baita kooxiometria egin ere. Azken saioan, beste horrenbeste errepikatzen dute, alderaketa ikusteko.

Eraginkorra izan dadin, nor bere buruarekin zintzoa izan behar dela argi utzi dute bi osasun-langileek, konpromisoa eskatzen duen erronka delako. Saioetan, mota askotako kideak daude, erretzeari utzi berri dutenentatik hasita, kontsumoa gutxitu dutenetara bitarte. Haien hitzetan, “kolektibizatu” egiten dituzte ezinegonak, eta guztiek diote, aho batez, “oso lagungarria” dela antzeko prozesua bizi duten horiekin esperientziak partekatzea: “Kontzientzia hartzeko baliagarria izateaz gain, fisikoki onurak sentitu ditugu”. Erretzeari utzi eta aste betera jada aldaketak sentitu dituzte gorputzean. Elkarren artean asko babesten eta animatzen direla aitortu dute. “Oro har, kontsumitzaileen artean, egunerokotasunean oso errotuta dagoen ohitura da horren kontsumoa”, dio kideetako batek, “edozein egoeretan egin daitekeelako”. Hari horri tiraka, Gereñok gaineratu du tabakoa erretzeko keinua ere “oso errepikakorra” dela. Ondorioz, gorputza bera ere ohitu egiten da atzak ahora

eramaten, behin eta berriro, “eta zaila da ohitura hori gainetik kentzea”.

Birikak, basoak, belztuta

Ohiturak aldatu badira ere, kontzientzia hartu al du jendeak, tabakoaren kontsumoari dagokionez? Edota, nahiz eta kontsumitzeko espazioak mugatu, oraindik ere zenbaki handiez mintzo behar al da tabakoaz jardutean?

Mendiluzek garbi dauka erantzuna: “Tabakoaren industria zutik dagoen bitartean, jendeak kontsumitzen jarraituko du”. Gauzak horrela, belaunaldi berrietan, kontzientzia areagotu delakoan da Gereño, baina, era berean, uste du horrek ez duela ez kontsumitzera eramaten: “Jendeak badaki kaltegarria dela; gaur egun, gaixotasunekin lotura estuagoa bilatzen zaio. Nahiz eta jakitun izan, jendeak erretzeko hautua egiten du”.

Ikerketa baten datuak ekarri ditu gogora Mendiluzek: “Hil-kortasun maila altuko zortzi gaixotasun garrantzitsuenetatik seik dute harreman zuzena tabakoarekin”. Halere, ez ditu soilik giza gorputzak kaltetzen. Ingurumenean izugarritzko inpaktua duela erakutsi dute Munduko Osasun Erakundeko ikerketek: laborantzak, fabrikazioak eta kontsumoak ura, lurra, hondartzak eta hirietako kaleak pozoitzen dituzte substantzia kimikoekin, hondakin toxikoekin, mikroplastikoak dituzten zigarrokin eta zigarro elektronikoekin. Ildo bere-tik, urtero, 600 milioi zuhaitz moztzen eta 22 mila miloi ur-litro xahutzen dira zigarretak egiteko.

Horrenbestez, sinetsita daude bi erizainak erretzeari uzteko taldeen garrantziarekin. Bi en iritzi, osasunean zein ingurumenaren jasagarritasunean onurak izateaz gain, aurrezpen ekonomikoa dakar erretzeari uzteak, bai norbanakoaren poltsikoari, bai osasun-sistemari. Horregatik ematen diote garrantzia Andoainen gertuko, aurrez aurreko harremanari, zenbaki kezkarri horien atzean aurpegiak, bizipenak daudelako. Esperientzia bakan horietako bakoitzari tentuz erreparatu diote. Bide horretan, saioetara gerturatu diren guztiek garbi dute, eta esperientziaren eragin-kortasunean berresten dira: “Taldeegatik izango ez balitz, ezinezkoa litzateke”.



Haurrek eta helduek elkarrekin dantza egiteko aukera eduki zuten Basteron, Esku Dantzarekin. AIURRI

Ikasturte amaierako erakustaldia Basteron

Azken bi urtetan Urkik dantza zaleei ezin izan die ikasturteko emanaldi berezia eskaini. Igandean gauzatu ahal izan zen aspalditik espero zen emanaldia. Dantzariak eta herritarrek bat egin zuten euskal tradizioko makina bat dantzen eskutik

Xabier Lasa ANDOAIN
Maite Sagaseta eta Leire Esnaolak egin zuten jaialdiaren aurkezpena. Eta pandemiaren ostean indarberrituta eta pozez txoratzen itzultzen zirela adierazi zuten. “Orain arteko emanaldietan urduritasuna, baina aurtengoan onartu behar dugu poza, irrika, alaitasuna eta sentimendu ugari eta nahasiak dakartzagula sabelean dantzan. Adin desberdinetako dantzariak astero-astero biltzen gara, eta gaur, haur zein helduak eta guztiak batera musikariak lagun ditugula, geure oinak astintzera gatoz. Basterotik atera gabe, Euskal Herri luze zabalean dantzaren bidez bidaiatzeko asmoa dugu”.

Joxema Setieni eskertza
Andoaino txistulariak Olagain Txistulari Elkarteko zuzendaritza utzi berri du, hamar urteren ostean. Bestetik, Urki dantza taldea sortu zuten dantzazaleetako bat izan orain 34 urte, eta geroztik, bertako txistularia izan

da urtetan. Urkiko egungo erakusle eta eragileek une egokia ikusi zuten esker ona adierazteko, eta horrexegatik, emanaldiaren erdian, ohorezko aurrekua dantzatu zioten. Hona irakurri zuten idatzia, Joxema Setieni zuzenduta: “Duela 34 urte, lehenengo Euskal Jaialdiaren bazkalondoan gure Dantza Taldea sortu zen, eta zu han zeuden, Joxema. Ilusioz beteri-ko herri ekintzaile gazte-gaztea

zinen; bai, Urkiren sortzaile bat zaitugu! Geroztik, urte guzti horietan, dantza taldearen partaide izan diren ehunka neska-mutil andoaindarren oinek zure txistu doinuaren esker egin dute dantzan. Gaur, Urkiren eta herritarren izenean, gure eskerrik maitagarriena azaldu nahi dizugu, zure ardura eta eskuza-baltasunagatik euskal dantza Andoaingo ondarean errotzen lagundu duzulako. Biba zu!”.



Sagar Dantza izan zen Urkiko gazteek taularatu zuten dantzetako bat. AIURRI

Ikasturte amaierako emanaldia



Ikusleek txalo zaparradaz erantzun zieten dantzari gazteei. AIURRI

Erakustaldia Ikasturte amaierako argazkiak eta bideo-sorta zabala ikusgai daude Aiurri.eus webgunean. Basterotik atera gabe, dantzaren bidez Euskal Herrian barrena bidaiatzeko gonbitea luzatu zieten ikusleei. Saioaren pasarteak ikusgai daude webgunean.



Jaialdian ez zuten hutsik egin Lapurdiko inauteriek. AIURRI

Irrika Aurkezleek dantzarien sentimenduari hitza jarri zioten: “Aurtengo emanaldian onartu behar dugu poza, irrika, alaitasuna eta sentimendu ugari eta nahasiak dakartzagula sabelean dantzan”.



Joxema Setieni esker ona adierazi zioten. AIURRI

Omenaldia Setienek eskertza jaso zuen: “Urkiren eta herritarren izenean, gure eskerrik maitagarriena azaldu nahi dizugu, zure ardura eta eskuza-baltasunagatik euskal dantza Andoaingo ondarean errotzen lagundu duzulako”.



Ospakizunetan bakarrik betetzen da San Juan plaza. Ostiral iluntzean lau pieza eskaini zituzten Egape dantza taldekoek herritarren aurrean. Edu Muruamendiaraz gertu zutela, saio bikaina eskaini zuten. AIURRI

Jaiatz gozatzeko gogo berezia

Garai bateko Gazte Festetan eta Sanmieletan bezala, halaxe zegoen San Juan plaza jaien hasieran: jendez lepo. Asteburu ederra izan da, eguraldia lagun hartuta. Urnietarren artean komunitatea trinkotzeko ezinbestekoak dira horrelako ospakizunak

Jon Ander Ubeda URNIETA

Azken bi urteotan bizi izandakoa ez da oharkabean igaro. Ezinbestekoa da aipatzea, bereziki gizarte bizitzaz ari bagara. Berriro ere kalera atera eta estuasunik gabe jai giroan murgiltzeko beharra zegoelako, behar handia. San Juan plazara gerturatzeko ari zen kalejirak betikoaren itxura zuen, baina bada aldagai bat berezi egiten zuena. Azken bi urteetan jai bizitzeko izan dugun ezintasuna. Ekitaldi asko ohikoak izan dira, jaien egitarauan aski errotuta daudenak. Baina berriak

balira bezala sentitu dituzte urnietar askok. Erraldoi eta Buruhandien konpartsa igarotzean haurren begiradan berriro ere zirrara antzematea, txaranga doinuak urrutitik entzutea eta saltoka hastea, "Gora Urnieta!" udaletxeko balkoitik entzun eta instantean oihera bera errepikatzea, Egapeko dantzariak dena ematen ikustea, Edu Muruamendiarazek pasio berarekin jarraitzen duela ikustea, gazte afarian mozturrotu eta parrandan murgiltzea... Berriro hastea ederra da, horrela koetan.



Musika ipini eta xaboi-burbuilak zabaldu zituzten balkoitik suzuria piztu aurretik. AIURRI



Sorginak taldeko hainbat kide Udaletxeko balkoian. Uneaz gozatzen ari ziren, ez baita ohikoa jaietako aukera izatea. AIURRI



Etxeberri plazan festazale ugari dago. Lanerako eta festarako prest. Bejondeizuela! AIURRI

Gizarte eragileen ekarpena

Gizarte eragile bakan horiei esker festazaleak jaiaz gozatzeko aukera izaten du. Zer lirateke jaiak Poxta Zahar, Sorginak, Kantazaun, Egape, Bosko Anitz, Etxeberri plazako bizilagunen eta beste askoren ekarpenik gabe? Behar-beharrezkoak dira



Sorginak taldea herriko eragile garrantzitsua bilakatu da. Gutxi barru San Juanen inguruan eurak ikusteko gogoz gaude. AIURRI



Kantazaun taldeak, euskara ardatz hartuta, kaleak girotzeko ezinbesteko lana egiten du. AIURRI

Erraldoi eta Buruhandien etorrera



Haurrak eta familiak dozenaka elkartu ziren. AIURRI

Jendetza Kaleak eta baita espaloiak familiez beterik zegoen. Hammelin txistulariaren antzera, Erraldoi eta Buruhandien konpartsak herrigunean topatutako haur eta guraso asko bidean zehar elkartu eta plazaraino eraman zituen.



Astoak izateko abiada bizian mugitzen ziren! AIURRI

Zirrara Haur eta gaztetxoek artean emozioa nagusitu zen, jaien hasierako ekitaldian. Maitasun-gorrito joko horretan, asko eta asko ziren buruhandiengana gerturatzen ziren gaztetxoak. Hurbildu orduko abiada bizian korrika alde egiteko.



Buruhandiak plazarako bidean. AIURRI

Hasiera Jaien hasieran gogo berezia antzematen zen urnietarren artean. Arratsalde polita izan zen askorentzat, eta egunak aurrera joan ahala helduek ere gozatzeko aukera izan zuten. Asteburu osoan zehar festaz gozatzeko aitzakiarik ez da izan.



Argazkirako pose egokienari saria merezi dute. AIURRI

Gazteak elkartzeko gaua

Urnietar gazteen artean komunitate-sentimendua indartzea da Gazte Festen helburuetakoa. Hainbat ekitalditan lortzen da hori. Besteak beste, ostiral gaueko afarian. Gogo biziz parte hartu zuten urnietar gazteek, bi urteko etenaldiaren ostean



Gazteak elkartu eta afariaren kontura komunitatea egiteko hitzordu bikaina da Gazte Festako afaria. AIURRI



Piña frutaren kontura oso jaki goxoak prestatu zituzten. Baita irri egin ere0. AIURRI



Koadrilan gozatzeko gau ederra izan zen ostiralekoa. AIURRI



Hawai kutsuko elementuez mozorrotu ziren afarira hurbildutakoak. AIURRI



Egape ikastolako jolastoki estalia ospakizun askoren bilgunea da. AIURRI



Egape dantza taldeko familia osoa, Usurbilgo dantzariekin batera. AIURRI

Urnieta dantzan

Urnietan euskal dantzarekiko zaletasuna handia bada, neurri handi batean, Egape Dantza Taldeari esker da hori. Larunbat eguerdian erakustaldi berria egin zuten, eta antolatu zuten ospakizunera Usurbilgo dantzariak gonbidatu zituzten



Egape dantza taldeko kideek Idiazabal kalean saioa eskaini zuten, Plazido Muxikan azken emanaldia eskaini aurretik. AIURRI



Txikienentzat eta helduenentzat egun berezia izaten da Urnieta Dantzan jaialdia. AIURRI

Txanbolinen emanaldia



Egape dantza taldeko kideek parte hartu zuten igandeko emanaldian. AIURRI

Emanaldia plazan Eguraldiaren laguntzaz, musikaz eta dantzaz gozatzeko eguerdia izan zen igandekoa. Txanbolinek euskal doinuen erakustaldia egin zuen, eta gonbidatu gisa dantzan aritu ziren Egape Dantza Taldeko kideak.



Txanbolin txistulari taldeko hainbat lagun, igande eguerdiko emanaldian. AIURRI

BALORAZIOA

UDALA URNIETA

Udalaren "balorazio positiboa"

Urnietako Udalak balorazio oso positiboa egin du asteburuan udalerrian ospatu diren 2022ko Gazte Festen inguruan. Giro onak eta urnietarren parte-hartze handiak markatu ditu aurtengo Gazte Festak, eta Udalak, jai-gogoa eta herritarrek erakutsitako errespetua nabarmendu nahi izan ditu, eta jakinarazi, jaiak inolako gertakari aipagarririk gabe igaro direla.

40 ekitalditik gora

Pandemiaren ondorioz bi urtez Gazte Festak ospatu gabe egon ostean, 2022ko azken asteburu honetan 40 jarduera inguru programatu dira, eta guztiak normaltasunez egin dira. Urnietako Udalak herritarren, eragile kulturalen eta udal langileen lana eta konpromisoa eskertu nahi ditu, eta baita egun hauetan izan duten jarrera ona ere.



Segurado alkatea eta txirrindulari gazteak, podiumean. AIURRI

Urnietako lasterketa, Andoaingo Txirrindulari Eskolaren eskutik

TXIRRINDULARITZA Idiazabal kalean zirkuitua osatu zuten, haur eta gaztetxoek lasterketaz goza zezaten

Erredakzioa URNIETA

Andoaingo Txirrindulari Eskolak badu eskarmentua, Gipuzkoako klubaren artean erreferentzia izanik. Aurreko larunbatean Urnietako Gazte Festetan haur eta gaztetxo mailako lasterketa antolatu zuten. Plaza berri bat da bidea egin nahi duten kimu berrientzat.

Lankidetzaz Hitzarmena Urnietako Udalarekin

Gazte Festen aurretik hitzarmena sinatu zuten Andoaingo Eskolak eta Udalak. Urnietan lasterketa antolatzea, hitzaldi bat eskaintzea eta lasterketa profesionalak bertatik igarotzean auzolana sustatzea dira hitzartutako lanak.



Andoaingo txirrindulari gazteak, ziztu bizian. ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA



Urnietako
udala

"Itzuliko gara. Gora Euskalduna!"

FUTBOLA "Denboraldia bukatu da, Ohorezko Mailari agur esateko momentua iritsi da beraz. Zaila eta batzuetan gogorra izan da, baina asko ikasi dugu. Itzuliko gara. Gora Euskalduna!". Mezu hori zabaldu zuen klubak, aurreko egunetan, jubenil mailako taldearen lana balioan jarritz.



EUSKADUNA

ITURZAETA-2022

Binakako Pala Txapelketa Herrikoia

LARUNBATA, EKAINAK 4

FINAL LAURDENAK:

- (A) 17:00 - **LOLDI I - LOIDI II** // **BERROBI - BELAUNTZA**
 (B) 17:30 - **SETIENT - USANDIZAGA** // **AMONDA - JAVI**
 (C) 18:00 - **URRUZOLA - SETIEN** // **ALKORTA - PONCE**
 (D) 18:30 - **GAZTAÑAGA - IPINTZA** // **ESKUDERO I - ESKUDERO II**

FINAL ERDIAK:

- 19:00 - **A** // **B**
 19:30 - **C** // **D**



IGANDEA, EKAINAK 5

- 17:00 **TXINDOKI - BARANDI** // **JAURE - FXURI**
 17:30 **MUTILEN 3. ETA 4. POSTUA**
 18:00 **NESKEN FINALA**
 18:30 **MUTILEN FINALA**

Iturzaeta Batzordea
iturzaeta.memoriala@gmail.com





Pilotazaleek hitzordua dute ostiral honetan, Andoainen. AIURRI

Herriartekoa, ostiral honetan Arrate pilotalekuan

PILOTA Andoain-Hernani eskuz, 18:45ean hasita; Andoain-Donostia palaz, 21:15etan hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Herriarteko Pilota txapelketako final laurdenak jokoan, Hernaniren aurka. Iragan astean hernaniarrek abantaila lortu zuten (2-1). Andoaindarrak herritarren laguntzaz aurkaria gainditzen saiatuko dira. 18:45ean, Arraten.

21:15ean larruzko pala eta pala motzeko norgehiagokak jokatu-ko dira Donostiaren aurka. Ez dute lan erraza izango, baina partidak irabaziz gero finalerako txartela eskuratu dezakete. Gomazko palan, berriz, kanporatuak izan ziren andoaindarrak.

Sagardoaren Txapelketa

ERREMONTA Hiru bikote sailkatu dira finalerdietara: Urriza-Zubiri, Goikoetxea-Barrenetxea eta Segurola-Azpiroz. Azken jardunaldian erabakiko da laugarren bikotea, Ezkurra-Zaldua eta Ansa-Juanenea artean

Erredakzioa URNIETA

Barrenetxea eta Urrizak gaur egungo bi izar nagusiak direla erakutsi zuten.

Urriza-Zubiri (Larre Gain) 30
Ansa II-Juanenea (Setien) 16
Irabazleak sailkatu dira finalerdietara eta lehenengo postuan daude partidu baten faltan. Gal-tzaileak ordea puntu negatiboa izan zuten eta horrek arriskuan utzi ditu laugarren postuan, bederatzi punturekin.

Goikoetxea-Barrenetxea (Oialume Zar) 30
Ezkurra II eta Zaldua I (Gurutseta) 14
Ligaxka amaitu dute garaileek 15 punturekin eta sailkatuta daude finalerdietara, bigarren



Hiru bikote dagoeneko sailkatu dira finalerdietara. ORIAMENDI

postuan. Ezkurra eta Zalduak berriz puntu negatiboa izan zuten eta zaila dute finalerdietara

sailkatzea. Azken jardunaldian erabakiko da, beraz, zein izango den sailkatuko den azken bikotea.



AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAM BIDEZ

- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitez eta jaso eguneko albiste nagusiak.

ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK





Sagardoaren txapelketa

EKAINAK 6 ASTELEHENA | 18:00-TATIK AURRERA

URRIZA · ZUBIRI vs EZKURRA II · ZALDUA I
SETIEN · ANSA II · JUANENEA vs SEGUROLA · AZPIROZ



GALARRETA JAI ALAI | SARRERA 5€

ORIA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK

63 sukia AIURRI Orona

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 2

ANDOAIN Erakusketa

"Euskadiko urak" argazki-erakusketa ikusgai dago. Urak, ibaiak egoera onean izateak duen garrantziaz kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi du. Eusko Jaurilaritzaren ekimenez. *Ekainaren 16ra bitarte. Goikoplaza.*

URNIETA Antzerkia

"Itsatsita: Ez ohiko musikala". Aktoreak: Xanti Korkostegi, Maria Redondo, Ainhoa Aierbe, Paul San Martin. Demode ekoizpen etxearen eskutik. *19:00, Sarobe.*

ANDOAIN Lehiaketa

Hogar Extremeñoren mikrokontaketen, argazkien eta marrazketen lehiaketa martxan da. Gazte eta helduen mailakoa da. Lanak aurkezteko: heconcursosonline@gmail.com. Informazio gehiago: heelmijondeloscastuos@gmail.com e-postan. *Azken eguna: Ekainak 4.*

OSTIRALA 3

ANDOAIN Hitzaldia

"Ingurumenaren auzia kapitalismoan", Jarkik antolatuta. *18:00, Andoingo Gaztetxea.*

URNIETA Antzerkia

"Esnatu naiz", Andoni Mutiloaren eskutik. Antzerkia, dantza eta musika. Identitatea, giza-harremanak eta sexualitatea hizpide. *19:00, Sarobe.*

ANDOAIN Antzerkia

"Kutxidazu bidea Ixabel" antzezlan musikala. Protagonistak, abesti eta abesti artean, egiaztatuko du baserrian bizi direnek darabilten euskarak ez duela zerikusirik gelan ikasi duenarekin. *19:00, Bastero.*

ANDOAIN Erakusketa

Miguel Balliache artistaren "Bibrak" izeneko erakusketa, azken lau urteetan egindako lanak baliatuta. *Ekainak 3-Uztailak 2. Bastero.*



Ostiral honetan musika eta antzerkia, euskaratik eta euskaraz. DEMODE

ANDOAIN "Kutxidazu bidea, Ixabel" musikala

Demode Produzioak ekoitzia, antzezle protagonistak Xanti Korkostegi eta Maria Redondo dira, eta aktore taldea Ainhoa Aierbek, Inazio Tolosak, Karlos Nguemak, Iker Huitzik, Pascualenak eta Santi Romanok osatzen dute. *Ekainak 3, ostirala. 19:00, Bastero.*

LARUNBATA 4

ANDOAIN Kultur Astea

Udal agintariei eta herriko eragileei harrera Hogar Extremeño elkartean, Kultur Astearen hasieran. Egitarau osoa 15. orrialdean. *Ekainak 4-12.*

ASTELEHENA 6

URNIETA Kontzertu-sorta

Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasturte amaierako emanaldiak. *Ekainak 6-10.*

ASTEARTEA 7

ANDOAIN Partaidetza prozesua

Hirigintza eta generoa. Herriko hainbat espazio eta eraikin publikoen diagnostiko osoa. Astearteko saioen azken eguna. *18:00, Urigain.*

OSTIRALA 10

ANDOAIN Kontzertua

Easo abesbatza zuzenean ariko da, Myriam Ulanga piano-jotzaileak lagunduta. *19:00, Bastero. 12 euro.*

LARUNBATA 11

ANDOAIN Kontzertua

Andoingo Rock jaialdiaren edizio berria. "Aperitiv" saioak eguerdian, eta arratsaldean emanaldi nagusia. 12:00 Ramada Inn Zumea plazan. 13:00 Natural Project Juanita Alkain plazatxoan. 14:00 John Dealer & The Coconuts Goikoplazan. 18:00 Melenas, Parlor Snakes, -Gailu, The Hanging Stars, El Drogas eta The Limiñanas Nafarroa plazan. *19:00, Sarobe. 12 euro.*

URNIETA Irteera

Mendi martxa Buruntzara. Ekologismoa hizpide, jardunaldiak antolatu ditu Jarkik Buruntzaldean, ingurumenaz, kapitalismoaz zein eskualdeko egoeraz hausnartzeko. *11:00, San Juan plaza.*

IGANDEA 12

ANDOAIN Hitzaldia

"Narcis@", antzerkia haur eta gaztetxoentzat. Teknologia berriak eta bereziki horien erabilera ardatz hartutako ikuskizuna. *12:00, Bastero.*

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

El arma del engaño
Larunbata, 4.
19:30, 22:00.
Igandea, 5.
19:30.
Astelehena, 6.
19:30, 22:00.

Sin ti ni puedo

Lar, 11. 19:30, 22:00.
Ig, 12. 19:30.
Ast, 13. 19:30, 22:00.

Jurassic World: Dominion

Lar, 18. 19:30, 22:00.
Ig, 19. 19:30.
Ast, 20. 19:30, 22:00.



SINOPSIS

**EL ARMA DEL ENGAÑO (OPERATION MINGEMEAT)**

Zuzendaria: John Madden. **Aktoreak:** Colin Firth, Matthew Macfadyen, Kelly MacDonald, Penelope Wilton, Jason Isaacs, Mark Gatiss, Johnny Flynn... **Herrialdea:** Britainia Handia. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 128 minutu. **Urtea:** 2021.

Benetako gertaeran oinarrituta

1943an, II. Mundu Gerra. Indar aliatuek erabaki dute behin betiko eraso egitea Europan. Baina erronka garrantzitsu bati egin behar diote aurre: inbasioan beren tropak

Alemaniko etsaietatik babestea, eta, horrela, sarraskia saihestea. Benetako gertakarietan oinarritutako istorioa, Ben Macintyreren 'Best sellerrean' oinarritua.



KOMUNITATEA

ONDARRETA IKASTETXEA ANDOAIN

Ikasturte amaierako festa



ONDARRETA IKASTETXEA

Datorren larunbatean, ekainaren 4an, Ondarreta ikastetxeak berriro ere ikasturte amaierako festa ospatuko du. Pandemiaren eraginez 50. urteurreneko ekintzak ezin izan ziren ospatu eta bi ikasturte amaierako festarik ere ezin izan da gauzatu. Aurtengoan, goizean zehar bertsolariak izango dira eta ziklo desberdinetako ikasleen abesti eta dantzen emanaldia izango da.

Honekin batera, nazioarteko pintxo eta jakien lehiaketa ospatuko da, tailer ezberdinak eskainiko dira eta Leizarango ikasleek bigarren eskuko azoka ipiniko dute.

Egurdian berriz, guraso, ikasle eta irakasleen bazkaria izango da patioan eta arratsaldean festak jarraituko du, besteak beste, puzgarri ezberdinak izango dira.

KOMUNITATEA

GAZTE LOKALA ANDOAIN

Ekaina Gazte Lokalean



VELILLA

Ekainean zehar, ekintza desberdinak antolatu ditugu Gazte Lokaletik. Hauexek: Costa Jump-era irteera ekainaren 4an, batidoak egiteko tailerra ekainaren 9an, Sanjuanetako kamisetak egiteko tailerra ekainaren 17an eta ping-pong txapelketa ekainaren 23an. Gazte Lokalean egitekoak diren jarduera guztiak 17:30ean hasiko dira. Bi modutara eman dezakezu izena: 682 025 485 telefono zenbakira deituz edo gaztelokala@andoain.eus e-mailera idatziz.



Ekainaren 4tik 12ra ekitaldi-sorta antolatu dute. AIURRI

Ekitaldiz beteriko astea iragarri du Hogar Extremeño elkarteak

El Miajon de los Castuos-Hogar Extremeño elkarteak XLIII. kultur astea ospatuko du, datozen egunetan

Erredakzioa ANDOAIN
Ekainak 4 eta 12 artean, Extremadura kaleko 3ko elkarteko liburutegian marrazketa lehiaketan aurkeztutako lanak ikusgai egongo dira.

Ekainak 4, larunbata
12:30 Harrera udal agintariei eta herriko elkarten ordezkari. Ondoren, zizkamizkak.

16:30 Mahai jokoak (tutea, kua-trola, musa, domino...).

Ekainak 5, igandea
14:00 Senidetasun bazkaria. Ondoren, bazkalondoa eta dantzaldia.

Ekainak 7 eta 8, astearte asteazken
18:00 Sukaldaritza garaikidea. Ikastaroa Mikel Rodriguez sukaldariaren eskutik.

Ekainak 9, osteguna
17:30 Haur jokoak.
18:30 Txokolate jatea.

Ekainak 10, ostirala
18:00 Urdaiazpiko iberikoa mozteko ikastaroa. Extremadurako ardoaren dastaketa.

Ekainak 11, larunbata
12:30 GENE elkartearen aldeko kontzertua Basteron. Parte-hartzaileak: Hernaniko Ozenki Abesbatza, Doinu Zale musika eskolako lau kantari (Mikaela Etxeberria, Loli Barrizas, Amaia Santana eta Irati Jauregi), Gora Kaletxiki Banda, eta, Urki dantza taldea.

Sarrera 3 euro. Salmenta, aurretik: Delgado, Ernaitza eta Stop. Egun berean: Bastero. Kontzertura azaldu ezin dutenek laguntza emateko, 0 lerroa ere ireki dute Kutxabank eta La Caixan.

Ekainak 12, igandea
10:00 Miga lehiaketa.
18:00 Sari banaketa ekitaldia.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Jon Azpiroz
Maiatzaren 28an 10 urte bete zituen. Urte askotarako Jon! Zorionak etxeko guztion partez.



ANDOAIN
Nora Mendizabal Ezeiza
Zorionak Nora! Jarraitu pilotan asko jokatzen! Muxu handiak, amona Miren eta aitona Estebanen partetik.



ANDOAIN
Zorionak Aroa eta Libe!!!
Aroak 9 eta Libek 7 urte betetzen dituzte maiatzaren 29an eta ekainaren 8an. Muxu potoloak etxeko partetik. Asko maite zaituztegu!!!

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK
Andoain: 943 006 670.
Urnieta: 943 006 680.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

MERKATU TXIKIA

MINTZALAGUNA
Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza edo mintzailagun bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

ENPLEGUA
Pertsona euskaldun bat behar dugu Lanbroa Tabernan lan egiteko. Interesatuak kontaktuan jarri lanbroataberna1@gmail.com-en edo **659 039 922** telefonora deituta.

Argiztapena Otietako tunelean

Udalak argiztapen lanen berri eman du: "Argiztapen berriak berme hobeak eta erdiko filtrazioak saihesten ditu; bertatik 20 argi-puntu berriak eratortzen dira. Lanek 3 asteko iraupena izan dute. Tunelak 281 metro inguruko luzera du, eta mugimendu-detektagailuak jarri dira argia pizteko".



UDALA



Huitzi, Antxordoki, Agirresarobe, Goñi eta Santamaria astearteko agerraldian. AIURRI

Kultur agenda, euskarazko euskarrietan

Esku-eskura ditugun gailu digitaletan eskualdeko kultur agenda gerturatzeko ahalegin amankomuna egin dute Beterri-Buruntzaldeko udalek. Instagram eta Telegram kontu berriak aurkeztu dituzte, lehendik zuten eskaintza aberasteko

Mikel Arberas ANDOAIN

Euskarazko kultur eskaintza oparoa bateratu eta herritarren eskura jartzeko premia ikusirik, Buruntzaldeko udalek kultur agenda bateratua abian jarri dute. Euskara eta kirola ataletan lan handia eta urte luzetakoa egiten ari dira, elkarlanean. Eta aurkeztu berri duten ekimenarekin beste urrats bat eman nahi

dute amankomunean. Kultur jardueri dagokiona da, hain zuzen. Garrantzia eman zioten agerraldiari, eskualde osoko ordezkari zabala elkartu baitzen Basteron egin zuten prentsa agerraldian. Luke Goñi Urnietako Udal ordezkaria, Jon Antxordoki Lasarte-Oriakoa, Oier Agirresarobe Hernanikoa, Oskar Santamaria Usurbilgoa eta Alex

Huitzi Andoaingo Euskara Saileko zinegotzia bertan izan ziren.


Oskar Santamaria usurbildarrak aipatu bezala, “astero izaten da zer egin eta zer gozatua herri batean zein bestean. Kultur agenda bateratua hilero-hilero elikatuko dute eta herritarren eskura jarri, martxan jarriko diren komunikazio kanalen bitartez”.

Buruntzaldea Euskaraz webgunea bera osatzea izango da hurrengo urratsa, Alex Huitzi andoaindarrak aurreratu zuenez: “Gauzak ondo, uztailearen hasieran estreinatuko dugu estetika berria. Atariak pixkanaka pisu handiagoa hartzea da gure helburua, potentzial izugarria duelako eta herritarrentzako baliabide egoki eta interesgarri ugari daudelako bertan. Bien bitartean, kultur agenda bateratuak bere bidea egitea da gure nahia, eta herritarrentzako tresna baliagarria izatea”. Kultur jardueren protagonismo berezia hartu zuten, Myriam Ulanga piano-jotzaileak saio txikia eskaini zuen. Bera izango baita datozen egunetako kultur agendaren protagonistatkoa. Ekainaren 10ean taulagainera igoko da, Easo abesbatzarekin batera.

Instagram jarraitzaile izateak saria dakar

Kontua sustatzeko helburuz, zozketa eta lehiaketak egingo dituztela iragarri zuten: “Harpidetzeak saria izango du. Hasteko, parte-hartzaile guztien artean 24 sarrera banatuko ditugu ekainaren 9an. Batetik, ekainaren 12an Usurbilen izango den “Trapu zikinak” antzezlanean sei gonbidapen bikoitz, eta, bestetik, ekainaren 17an Basteron izango den “Neomak” taldearen kontzerturako beste sei sarrera bikoitz”. Zorte on @buruntzaldeaeuskaraz kontuko jarraitzaile berriei.

ESKUALDEKO UDALETA KO EUSKARA SAILEK KULTUR AGENDA BATERATUA AURKEZTU DUTE



Buruntzaldeko udalek euskarazko kultur ekintzen berri emateko kanale. Buruntzaldeko sei udalek sortua.

Telegram kateko irudia.

Aukera zabala internet sarean

Buruntzaldea Euskaraz ekimenak bazuen webgunea, eta baita Twitter eta Facebook sareetan kontu bana ere. Aste honetako agerraldian Telegram kanala eta Instagram kontu zabaldu berriak eman zituzten jakitera. Aukera zabala da, honezker:

- Webgunea: euskara.buruntzaldea.eus.
- Telegram: Buruntzaldeko kultur agenda.
- Instagram: @buruntzaldeaeuskaraz.
- Twitter: @BuruntzaldeaEus.
- Facebook: @BuruntzaldeaEuskaraz.
- Buletin elektronikoa, hileroko maiztasunarekin.

EUSKARALDIA 2022 ANDOAINEN

Aurtengo ekimenaren aurkezpena ekainean bertan. Adi egon!

